



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2005eko urriaren 27a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena

**HASIERA-ORDUA:** 19:05    **AMAIERA-ORDUA:** 19:25

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Mirari Arruabarrena Elizalde

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Ramon Etxeberria Aldaz,  
M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba  
Solaberrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian, Noemi  
Ostolaza Arkauz, M<sup>a</sup> Elena Legarra Alfaro, Eugenio  
Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose  
Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi



## Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2005eko irailaren 27ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
2. Hasierako onarpena ematea, egoki bada, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 5/2005 zenbakidun espedienteari, kreditu-transferentzien modalitatean.
3. Hasierako onarpena ematea, egoki bada, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen kredituen aldaketarako 6/2005 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.
4. Onartzea, egoki bada, Udal honek baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko Orioko Antilla Hondartzako 3. eraikinean administrazioko emakidaren kontratazioa arautuko duten Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Pleguak.
5. Esleitzea, egoki bada, Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. Hirigintza-Jarduerarako eremuko 10, 11, 12, 13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak enkante publikoan saltzeko kontratua.
6. Onartzea, egoki bada, Orioko Kale Nagusia, 17 eraikinaren salerosketa, MIKEL ZELAYA LARRAÑAGAREN jabegoa, eta Alkatetza-



Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

7. Orioko PSE-EE-PSOE talde politikoak aurkeztutako mozioa Orioko Udalaren parte hartzeaz Heriotza Zigorren aurkako munduko koalizioan.
8. Onartzea, egoki bada, Mirari Arruabarrena Elizalde Andreak Orioko Alkate-Lehendakari karguari eginiko uko egitea.
9. Kontu ematea, Mirari Arruabarrena Elizalde Andreak aurkeztutako Orioko Udaleko zinegotzi karguari uko egiten dion idatzia.
10. Eskariak eta galderak.



# Esan-eginak

## **1. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO IRAILAREN 27KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, 2005eko irailaren 27ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

## **2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2005EKO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 5/2005 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEARI, KREDITU-TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko urriaren 18an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldatetarako 5/2005 zenbakidun espedienteari, kreditu-transferentzien modalitatean.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:



- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzaitza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (asteleheneetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

### **3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2005EKO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN KREDITUEN ALDAKETARAKO 6/2005 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEARI, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko urriaren 18an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2005eko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldaketarako 6/2005 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.



2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

*a) Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzailletza.

*b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

*c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.

*d) Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

*e) Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).

*f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

#### **4. ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL HONEK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 3. ERAIKINEAN ADMINISTRAZIOKO EMAKIDAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko urriaren 18an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:



1. **ONARTZEA**, Udal honek baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko Orioko Antilla Hondartzako 3. eraikinean administrazioko emakidaren kontratazioa arautuko duten Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-administratiboen Pleguak.

2. Administrazio Publikoen Kontratuen testu bateginaren ekainaren 16ko 2/2000 Legearen 78. artikuluan ezarritakoaren arabera, publiko egiten da Baldintza Orrien laburpen hau:

**1. Entitate adjudikatzailea:**

- a) Organismoa: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen atala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.

**2. Kontratuaren xedea:**

- a) Deskripzioa: Orioko Antillako hondartzako 3. zenbakian dagoen eraikinaren okupaziorako kontzesio administratiboaren kontratazioa, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.
- b) Non exekutatuko den: Orion.
- c) Kontratuaren iraupena: Kontratu honen iraupen osoa 2018ko maiatzaren 30ean amaituko da.
- d) Kontratuaren exekuzioak obra hauek egitea dakar: Orioko Antillako hondartzako 3. zenbakidun eraikina egokitzea, Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko.

**3. Tramitazioa, prozesura eta adjudikatzeko era:**

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Adjudikatzeko era: Lehiaketa.



**4. Ustiapenaren kanona:**

Gutxieneko kanona eta urteko kontratazio eperako izaera nagusia duena, lehen urtean, hau da, 2006ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra, 40.000 eurotan ezartzen da.

**5. Garantiak:**

- a) Behin-behinekoa: 800 euro.
- b) Behin-betikoa: 40.000 euro.

**6. Iragarki gastuak:**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

**7. Kontratistaren sailkapena:**

Ez da esijitzen

**8. Baldintza Orrien jendaurreko erakusketa:**

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legearen 122. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orriak jende aurrean erakutsiko dira zortzi laneguneko epeaz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko. Udal Plenoak erabakiko du erreklamazioei buruz, baldin badaude. Baldintza orrien kontra erreklamazioen bat aurkezten bada, lizitazioa behar-beharrezkoa den neurrian bakarrik atzeratuko da.

**9. Non lortu dokumentazioa:**

- a) Tokia: Orioko Udaletxea.
- b) Helbidea: Herriko plaza, 1.
- c) Posta kodea eta herria: 20810 Orio.
- d) Telefonoa: 943 83 03 46.





e) Faxa: 943 13 02 60.

**10. Proposamenak aurkezteko:**

a) Epea: Iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta, hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo hogeita sei (26) egunen barruan.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Tokia: Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailletza. Herriko plaza, 1. 20810 Orio.

d) Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 08:30etatik 14:30etara.

**11. Proposamenak irekitzea:**

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunaren hurrengo laneguna, larunbata ez bada. Larunbata baldin bada, hurrengo lanegunera pasako da eguna.

c) Ordua: 12:00ak.

**5. ESLEITZEA, EGOKI BADA, ORIOKO “HONDARTZA” A.I.U.3KO U.E. 3.2. HIRIGINTZA-JARDUERARAKO EREMUKO 10, 11, 12, 13 ETA 14 ZENBAKIKO PARTZELAK EDO FINKAK ENKANTE PUBLIKOAN SALTZEKO KONTRATUA.**

Jarraian Udalbatzarrak 2005eko urriaren 3an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 187. zenbakian argitaratu zen tramitazioaren berri du. Tramitazio horretan Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. hirigintza-jarduerarako eremuko 10, 11, 12, 13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak enkante publikoan saltzeko kontratua esleitzeko lizitazioa argitaratzen da.



Zabaldu zen epearen barruan hamabi lizitatzaille aurkeztu ziren:

- KIZKITZAMENDI, S.L.
- INMOBILIARIA DE ORIO TXOKO TXIKI, S.L.,  
CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, S.L.
- NASIPA, S.L.
- GESTIÓN Y DESARROLLO GOIARGI, S.L.
- GAILUR LEKU, S.L.
- CANCHAS DEL MANZANARES, S.L.; A.R. GESTIÓN, S.L.
- PROMOTORA LATXARTEGI, S.A.
- NEINOR, S.A.
- ANTZIBAR, S.A.
- URAZCA, S.A.
- CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A.
- DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L.;  
JAUREGIZAHAR, S.L.

Ikusita kontratazio mahaiak Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. hirigintza-jarduerarako eremuko 10, 11, 12, 13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak enkante publikoan saltzeko kontratua esleitzeko lizitazioa Lazkano jaunak ordezkutzen duen **ANTZIBAR, S.A.**-ri adjudikatzea proposatzen duela, eskaintza ekonomiko onena egin duelako, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguaren 12. artikulua ezartzen dituen zehaztapenen arabera.

Udal honetako Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:



**LEHENENGO.-** Baliotzat **EMATEA** 2005eko urriaren 27an izan den pleguen irekiera.

**BIGARREN.- BEHIN BETIKO ADJUDIKATZEA** Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. hirigintza-jarduerarako eremuko 10, 11, 12, 13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak enkante publikoan saltzeko kontratua esleitzeko lizitazio kontratua Lazkano jaunak ordezkaten duen **ANTZIBAR, S.A.-ri**, partzelen salmentaren prezioa **HAMAR MILIOI LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HAMASEI ZENTIMOKOA (10.465.289,16 €)** (B.E.Z. barne) izanik.

**HIRUGARREN.-** Akordio hau **ARGITARATZEA** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**LAUGARREN.- AHALMEN OSOA EMATEA** Tokiko Udalbatzaren Alkatetza-lehendakaritzari, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. hirigintza-jarduerarako eremuko 10, 11, 12, 13 eta 14 zenbakiko Udal jabegoko partzelak edo finkak saltzeko beharrezko diren dokumentu pribatu zein publikoak sinatu ditzan, eta hori guztia, dagokion Jabego-erregistroan erabat izena eman arte.

**6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KALE NAGUSIA, 17 ERAIKINAREN SALEROSKETA, MIKEL ZELAYA LARRAÑ AGAREN JABEGOA, ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI AHALMEN OSOA EMATEA ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2005eko urriaren 24an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:



**ONARTZEA** Orioko Kale Nagusia, 17 eraikinaren salerosketa, MIKEL ZELAYA LARRAÑAGAren jabegoa, eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

Salerosketaren prezioa 450.760 eurokoa da.

## **7. ORIOKO PSE-EE-PSOE TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ORIOKO UDALAREN PARTE HARTZEAZ HERIOTZA ZIGORRAREN AURKAKO MUNDUKO KOALIZIOAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Mozioak hitzez hitz honela dio:

El Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orjo presenta la siguiente moción sobre la participación del Ayuntamiento de Orjo en la Coalición Mundial Contra la Pena de Muerte, para su debate y aprobación en Pleno:

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La coalición Mundial Contra la Pena de Muerte se creó en 2002 y está compuesta por organizaciones de derechos humanos y jurídicas en el ámbito de los derechos humanos, y por la autoridades locales y regionales que han unido sus fuerzas en favor de la abolición de la pena de muerte en todo el mundo. Los objetivos de la Coalición van dirigidos a estimular el debate pbljco y reforzar la oposjción a la pena de muerte, presionar a los Estados que aún la conservan para que pongan fin a las ejecuciones y la supriman.

El Ayuntamiento de Orjo expresa su voluntad de participar en la Coalición Mundial Contra la Pena de Muerte, unido a organizaciones y personas de todo el mundo, de diferentes nacionalidades, creencias, edad y sexo, en una lucha común para poner fin a la pena de muerte en todo el mundo.

Para este Ayuntamiento, la pervivencia de la pena de muerte en demasiados países del mundo constituye algo condenable en el siglo XXI, que afecta a los valores del hombre ya la propia dignidad del ser humano. El movimiento abolicionista está ganando la carrera, pero aún queda mucho para la victoria definitiva. Por ejemplo, en una cárcel de Filipinas está condenado a muerte un español nacido en ése país, e hijo de un pelotari vasco: Paco Larrañaga. La justicia filipina ha vuelto a confirmar la condena de muerte a este ciudadano tras un juicio plagado de irregularidades. y en el corredor de la muerte de la prisión de Starke, en Florida, está un sobrino e Urtain, Pablo Ibar. Fue detenido hace más de siete



años y acusado de un triple crimen. Hubo irregularidades en el proceso y no existen pruebas concluyentes que lo impliquen en estos asesinatos.

Son momentos difíciles para los derechos humanos y debemos responder firmemente para mantenerlos valores en los que creemos. Los derechos humanos son para los mejores y para los peores, para los culpables y para los inocentes. Por todo lo anteriormente expuesto, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orio presenta la siguiente moción a fin de que el Pleno se pronuncie sobre la misma y adopte los siguientes acuerdos:

1º- El Ayuntamiento de Orio se adhiere a la celebración del Día Mundial contra la Pena de Muerte.

2º- El Ayuntamiento de Orio acuerda formalizar su adhesión a la Coalición Mundial Contra la Pena de Muerte y apoyar a nivel internacional todas las acciones que se dirijan hacia la abolición universal de la pena de muerte.

3º- Este acuerdo será notificado al Secretario Ejecutivo de la Coalición Mundial Contra la Pena de Muerte.

Juan Jesus Rodriguez Pousa

Concejal del Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orio.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

**ONARTZEA** Orioko PSE-EE-PSOE talde politikoak aurkeztutako mozioa Orioko Udalaren parte hartzeaz Heriotza Zigorren aurkako munduko koalizioan.

**8. ONARTZEA, EGOKI BADA, MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE ANDREAK ORIOKO ALKATE-LEHENDAKARI KARGUARI EGINIKO UKO EGITEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:



**ONARTZEA** Mirari Arruabarrena Elizalde andreak Orioko Alkatelehendakari karguari eginiko uko egitea.

Jarraian Mirari Arruabarrena Elizalde andreak hitza hartzen du eta zera adierazten du:

Ia bost urte egin ditut alkate eta 11, zinegotzi. Ahaztuko ez ditudan bost urte izan dira, paregabeko ohorea baita nor bere herriko alkate izatea.

Urte hauetan uste dut Oriok aurrera egin duela, guztion ekarpenekin. Herriaren hazkundera planeatu eta garatzen hasi gara. Kiroldegia martxan jarri genuen eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen ari gara. Futbol zelai berria kiroldegiaren alboan egitearekin, kirol gune erakargarria osatu dugu herrian. Udaletxe berria eraiki genuen eta hainbat kale berritu ditugu. Hezkuntza zerbitzuei dagokienez, berrikuntzak egin ditugu Musika Eskolan, ikastolan eta Zaragueta ikastetxean; horretaz gain, haur eskola eraikitzen ari gara. Gizarte zerbitzuei dagokienez, Eguneko Zentroa martxan dago, jai eta aste, 25 plazarekin eta Azurzaneko etxean, urte berriarekin, 6 pisu tutelatu eta gizarte zerbitzuetako bulego berriak izango ditugu.

Etxebizitza beharrari aurre egiteko, 16 etxebizitza adjudikatu berri ditugu Azkue eremuan eta hasiak ditugu lanak, hondartzako eremuan datorren urtean 75 etxebizitza babestu eraikitzeko.

Aparkaleku eskasiari erantzuteko, 400 garaje inguru eraikitzen ari gara kiroldegi, alde zahar eta futbol zelai berriaren azpian.

Aparteko aipamena merezi du autopistako irteerak. Hainbeste urtetan Oriok behar eta eskatzen zuen autopistarekiko lotura datorren urtean hasiko da egiten. Nahi baino beranduago, baina, azkenean, Orioko komunikazioa nabarmen hobetuko duen proiektua abiatuko du Aldundiak.

Etorkizunerako funtsezko bi proiektu ere abiatu ditugu, kirol portua eta hondartzako hotela eta talasoterapia, herriaren ekonomian zeresan handia izango dutenak.

Momentu onak eta txarrak pasa ditut, ezin ukatuko dut. Momentu alaiak eta tristeak, garratzak eta gozoak, bizitza halakoxea baita. 2001eko Baia Eguneko herritarren partehartzea oso pozgarria izan zen; baina gogoan daukat, baita ere, urte hartan Kontxako Banderak eskuetatik alde egin zigula. Egunik garratzena, bestalde, Juan Priede hil zuten hura izan zen.

Herritarrei esker izan naiz alkate eta zuei eman behar dizkizuet, lehendabizi, eskerrak. Eskertzen dut, bestalde, zinegotzi guztiek eta udal langileek eskaini didaten lankidetzeta, eta baita herriko elkarteena ere. Eta, nola ez, aipatu eta eskertu beharrean nago familia osoak eman didan babesa; bereziki, senarrak, seme-alabek eta gurasoek.



Badakit nik egindakoak ez direla denen gustukoak izango, baina hartu ditudan erabaki guztiak eta bultzatu ditudan proiektuak borondate onenarekin eta gure herria hobetzeko asmoarekin hartu ditut.

Orain Ramon Etxeberria izango da alkate. Udala eta herria ondo ezagutzen ditu eta lan egiteko kemena ez zaio falta; beraz, lan arrakastatsua egingo duelakoan nago, eta hala opa diot. Nire lankidetzaz ere eskaintzen diot, izan ere, orain lana beste leku batean egingo badut ere, nire bihotza beti egongo da Orion.

## **9. KONTU EMATEA, MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE ANDREAK AURKEZTUTAKO ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEN DION IDATZIA.**

Idatzi hau sinatzen duen Idazkariak hitza hartzen du eta **MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE** andreak, 2003ko maiatzaren 25ean izandako Udal-hauteskundeetan Orioko EAJ-PNV/EA koalizioaren zerrendan 1. hautagaia zen aldetik eta Orioko Udaleko zinegotzi hautetsi izendatua, Udalbatzarrari zuzendutako idatziaren berri ematen du. Idatzi horretan Orioko Udaleko Zinegotzi karguari uko egiten dio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikulua ezarritakoaren arabera, arrazoi pertsonalak direla medio eta ezin duelako zinegotzi karguan jarraitu, eta beraz, eskatzen du onartua izan dadila uko egitea eta bere karguaren zinegotzi aldaketa, ekainaren 19ko Hauteskunde-Legedi Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkaritza Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera.

Era berean, Udalbatzak **FERNANDO ARRIOLA APERRIBAY** jaunak, 2003ko maiatzaren 25eko Udal Hauteskundeetan EAJ-PNV/EA koalizioaren aldetik 1. ordezko hautagaia, aurkeztutako idatziaren berri du, eta bertan **UKO EGITEN** dio Orioko Udalean **MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE** andrearen ordez zinegotzi izatearen izendapenari.

Era berean, Udalbatzarrak **ASIER YEREGI CAMPOS** jaunak, 2003ko maiatzaren 25ean izandako Udal-hauteskundeetan Orioko EAJ-PNV/EA



koalizioaren zerrendan 2. ordezkoko hautagaia, aurkeztutako idatziaren berri jaso du, eta adierazten du **ONARTU** egiten duela Orioko Udalean EAJ-PNV/EA koalizioaren zinegotzi izendapena **MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE** andrearen ordezkari, Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkari Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera, eta **DEKLARATZEN DU** ez dagoela aipatu Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 6, 177 eta 178 artikuluetan jasotako inongo hautagarri ezintasunen baten barne; hori guztia, Orioko Udaleko Zinegotzi hautetsi izaeraren egiaztatzea luzatu ahal izateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaiari aplikagarri zaion eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, gaia eztabaidatu ondoren, **AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (**11 BAIEZKO BOTO**), Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, Udal honetako Udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**1.- ONARTZEA MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE** andreak EAJ-PNV/EA koalizioaren aldetik Orioko Udaleko Zinegotzi karguari egin dion ukoa, eta **FERNANDO ARRIOLA APERRIBAY** jaunak MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE andrearen ordezkari Orioko Udalean zinegotzi izendapenaren karguari UKO EGITEN dion idatziaren berri izatea, eta **ASIER YEREGI CAMPOS** jaunak Orioko Udalean EAJ-PNV/EA koalizioaren zinegotzi izendapena onartzearen berri jaso izana, **MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE** andrearen ordezkari.

**2.- IGORTZEA** akordio honen egiaztatze literal bat Madrileko Hauteskunde-Legedi Orokorreko Lehendakariari, EAJ-PNV/EA koalizioaren aldetik Orioko Udaleko Zinegotzi hautetsi izaeraren egiaztatzea jaso dezan **ASIER YEREGI CAMPOS** jaunaren alde, **MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE** andreak uko egitea aurkeztu ondoren hutsik geratu den eta Udalbatzarrak onartu duen kargua; hori guztia aipatu Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkari Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera.





## **10. ESKARIAK ETA GALDERAK**

Ramon Etxeberria Aldaz jaunak hitza hartu zuen eta Mirari Arruabarrena Elizalde andreak ia 5 urte hauetan Alkate gisa egindako lana eskertu zion, eta Jaurlaritzan izango duen lan berrian lanaldi ona eta zorte handia opa zion, eta lan berrian izan dezala beti kontuan Orioko herria eta Orioko biztanleak.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATEA FUNTZIOTAN**

**IDAZKARIA**